



SANTI LAZKANO / nekane zinkunegi / **uztarria**

Santi Lazkano

Nekane Zinkunegi

uztarria

© Egilea. Nekane Zinkunegi

© Uztarria Komunikazio Taldea

2010eko azaroa

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

Diseinua eta maketazioa. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Arlo guztietan ezin hobia	07
38 urtetako zertzeladak	08
Etxekoen begietatik	14
Jabier Zinkunegi, laguna	20
Aisialdian txirrindularitza	24
Txirrindulari ona eta langilea	26
Heriotza bi gurpilen gainean	36

ARLO GUZTIETAN EZIN HOBEA

Anaia maitagarria, edo gazteena zelako maitatue-na, berezia, geldirik egoten ez diren horietakoa.

Senar ona eta alabentzat munduko aitarik onena. Bere ogibidea zela medio, urte askoan etxe-tik kanpo denbora ugari igaro beharra tokatu zitzaion arren, etxean zegoenean familiarekin ego-ten eta gozatzen zekiena.

Lagun eta kide leiala, hitzekoa, laguntzeko prest zegoena.

Txirrindulari ona, langilea eta saiatua, bizikleta gainean taldekideen babesik epelena jaso eta aur-kariei errespetua sorrarazten ziena. Behin lehia amaituta, guztien laguna zen hurbileko pertsona. Heldu nahi zuen helmugara iristeko egitekoak garbi zituena eta horietan zentratuta, atzera egingo ez zuena.

Pertsona aurrerakoia, inizatibaduna, beti egi-tasmo berriak buruan zituena eta horietan sinestuz aurrera egiten zekiena. Inguruko jendea inplika-tzen eta lanean gustura sentiarazten ezin hobeto asmatzen zuena.

Halakoxea izan zen Santi Lazkano txirrindulari ospetsua. Datozen orrietan aipaturiko ezaugarriak

sakontzeko ahalegina egingo dut, bere sendikoek eta lagunek kontaturiko esperientzietatik abiatuta; Santiren bizitza berreraikitzekeo saiakeratxo bat baino ez da hau, haren heriotzaren 25. urteurrena bete berri den honetan, falta arren presente jarraitzen duen pertsona izaten asmatu zuelako.

38 URTETAKO ZERTZELADAK

1947ko maiatzaren 8an jaio zen Santi Lazkano Labaka Errezilen. Bost senideetan gazteena zen. Bere aurretik, Jose Mari eta Pedro anaiak eta Anttoni eta Inaxi arrebak zituen, hurrenez hurren. Berak hamar urte zituela ama hil zitzaient, eta Santi Lezoko izeba-osaben etxera joan zen bizitzera bi urte ingururako.

1959an, 12 urte zituela Azpeitiko jesuitetara etorri zen eta arotz ofizioa ikasten hasi zen. Garai horretan hasi zitzaion txirrindularitzarako zaletasuna pizten eta, bere inguruko adina zutenen artean nabarmentzen zenez, Onex-ek, jubenil mailako talde batek, kontratatu zuen 14 urte zituela. 1961ean izan zen hori, bi urtez jesuitetan egon ostean, arotz-lanean hasi baitzen Azpeitian. Aldi berean, bere afizioarekin jo eta ke ziharduen.

nti familiarekin. Behean, eskubian, senideetan txikiena



Frantziako Tourrean, lasterketaren
bukaeran, Santi besoetan Eneka alaba
duela eta emazte Josunerekin.



Etxekoen artean, ikuspuntu ezberdinak zeuden Santiren etorkizuneko nahiarekiko. Aita itsu-itsuan laguntzeko prest zeukan eta senideek, berriz, ez zuten uste bide horretatik inora heltzea erraza izango zitzaienik.

Anaien artean zaharrena, Jose Mari, Lezora ezkondu zen eta, igandetan jaiotetxera bisita eginenez joaten zenean, izugarrizko azalpen diplomatikoak ematen zizkion. Txirrindularitzarena mundu gogorra zela, hortik zerbait lortzekotan ahalegin asko egin eta sufritu beharra zegoela, inongo bermerik gabe aritu beharko zuela... Pedro, anaietan bigarrena, berriz, haserretu egiten zen Santiren “ameskeria” horiekin. Ez zuen ulertzen etxeko txikienak zergatik egin behar zuen gainerakoekin alderatuta zerbait ezberdina. Beste senideek bezala baserrian edota lantegian aritzea izango zen normalena nonbait. Hala ere, aurrez esan bezala, aitak seme gaztearen desioa betetzearren edozer egingo zukeen eta etxekoen ezkutuan laguntzen ere aritzen zen, gainerakoak jeloskor jar ez zitezen edo.

Bi anaia zaharrenak etxetik kanpora ezkondu ziren; Jose Mari Lezora eta Pedro, berriz, Elgoibarrera joana zen. Errezilgo etxean, beraz, Santi bi arrebeekin eta aitarekin bizi zen. Jose Marik

Lezon bizi eta Errenterian egiten zuen lan eta Pasai Donibanen bazuen etxe bat erosia. Beti aritzen zen aitari eta anai-arrebei nahi zutenerako etxe hura libre zegoela esanez. Hala, harritzekoa bada ere, aita izan zen Errezildik Pasai Donibanera bizitzera joateko animatu zen lehena. Anttoni arrebak nahia-go zuen jaiotetxean geratuta, baina azkenean, lauak irten ziren.

Ezagutu eta bizitza berarekin partekatu zutenek, ideiak eta asmoak argi zituen pertsona zela diote. Hargatik, etxeko gehienei grazia handirik egiten ez zien arren, oso garbi izan zuen Santik txirrindulari profesionala izatera heldu nahi zuela eta horretarako egin beharreko guztia gogotsu egingo zuela. Ondoren, bere emaztea izango zena ere bizikletaren gainean ezagutu zuen. 1965. urtea edo izango zen, Urrestillako Josune Orbegozo Erniora zioan oinez eta Urrakiko bizikleten igoeraren amaiera ikusten geratu zen. Egun horretan ezagutu zuten elkar eta denborarekin batean eta bestean elkartzen joan ziren.

Hala, Santi arrebeekin eta aitarekin batera Pasai Donibanen bizi zela, Josune Londresen egon zen urte eta erdian ingelesa ikastera joanda. Txirrindularitzako denboraldia amaitzean, andre-

gaiarengana joan zen Santi eta Londresen bertan ezkondu ziren. 1972an euren alaba zaharrena, Eneka, jaio zen eta 1974an, berriz, gazteena, Izaro. Urte horretan, Santiren familiarekin batera, Pasai Donibanen jarri ziren bizitzen.

1976. urtean izan zuen hain gustuko zuen zale-tasunarekin etetea eragin zion istripua. Mundialerako entrenamendu bezala, Holandan bost eguneko karrera bat antolatua zen eta Santi ere, bere taldearekin batera, haraxe joan zen Munduko Txapelketarako prestatzera. Bost egun horietako batean, elkarren atzetik ilaran zihoazela, bidea oztopatzen zegoen auto bat. Bere aurrekoak kotxea saihestu zuen, baina ez zion inongo seinale-rik egin Santiri. Ondorioz, errezildarrak ez zuen erreakzionatzeko astirik izan eta autoaren kontra jo zuen. Hala, belauna apurtu zuen eta ezin izan zuen berriro bizikleta gainean profesionaletan korritu.

Txirrindularitza betiko ez zenez, beste ogibide-ren bat bilatu beharra izan zuen. Hala, jaiotzetik herrikide zuen Eitzetako Jabier Zinkunegirekin batera, Errezil-Etxea autoen tailerra jarri zuen mar-txan Azpeitian, 1975ean. Garai horretan, Pasai Donibanen bizi zen oraindik eta egunero joan-eto-rrian ibiltzen zen handik Azpeitira. Aldi hartan,

1978. urtean, Santi Lazkano Kirolak denda ireki zuen, hau ere Azpeitian.

Urtebete geroago, 1979an hain justu, senar-emazteak eta bi alabatxoak, Azpeitira etorri ziren bizitzera. Etengabe aipatzen dute bere ingurukoek inizatiba handiko pertsona zela eta beti zerbait egi-teko beharra izaten zuela. Negozioetarako sena ere ez zitzaion falta Santiri. Kirol denda ez ezik, urte batzuk geroago Landetako Izaro Autoak, Opel etxearen tailerra jarri zuen martxan.

Azken datu horiei erreparatuta, autoetarako zaletasuna ere bazuela argi ikus daiteke. Halaxe zen, autoak eta motorrak gustuko zituen beste hainbat konturen artean. Izan ere, eleberriak edota testu historikoak irakurtzea, txistu eta akordeoizko piezak edota sentimenduz beteriko euskal kantak entzutea ere asko maite zuen. Baina, txirrinduarekiko zaletasunaren gainetik ez zukeen ezer jarriko. Hargatik, profesionalki mundu horretatik urruntze-ra behartua izan bazen ere, lan asko egin zuen Azpeitian txirrindularitza sustatzen.

Azpeitiko Lagun Onak Txirrindulari Elkarteko kide zen eta Txirrindulari Eskola sortzearen ideia izan zuen. Hala, 1982an elkarteko hainbat kidek elkarlanean, ideia hori gorpuztu zuten. Egitasmo

honen helburua Urola bailaran txirrindularitzareki-ko zaletasuna hedatzea eta hurrek zaletasun hori garatzea izan zen. Eta Santiren lanerako gaitasunari zein umoreari esker, jende ugari agertu zuen hori guztia aurrera ateratzeko egin beharrekoetan parte hartzeko prestutasuna. Hala, Urola izenarekin jarri zen martxan Txirrindulari Eskola eta lau herriren arteko egitasmo bihurtu zen, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Errezil barnebiltzen zituena.

Horiek eta beste hainbat izan ziren Santi Lazkanok bere bizitzan zehar txirrindularitzaren munduari eginiko ekarpenak eta mundu horretan izandako lorpenak. Aipatu da bizikletaz gain bi gurpileko beste garraio-modu bat ere gustukoa zuela. Hain justu, Aizarnazabaldik Zarautzera bidean zihoala, motorrean izandako istripu batean hil zen 1985eko otsailaren 3an.

ETXEKOEN BEGIETATIK

Pertsona zintzoa eta maitagarria izan zen Santi bere 38 urteetako bizitza laburrean. Ama 10 urte zituela hil zitzaion eta, horren ondorioz, Errezilgo jaiotetxetik Lezora joatea egokitu zitzaion. Bi urteren ondoren, Azpeitiko jesuitetara etorri zen eta

orduan piztu zitzaion txirrindularitzarekiko sena bere barnean. Etxeko txikiena izanik oso maitatua zen, berezia bere senideen hitzetan, edozerekiko jakin-mina izaten zuen. Egoskorra ere bai hein batean, nahi zuen hura lortzeko dena egiteko prest izaten baitzen eta hori frogatu zuen bere bizitzan.

Dagoeneko hilda dagoen arreba Iñaxi jarraitzaile sutsua izan zuela esan daiteke. Txirrindulari profesionala izan zen urte luzeetan, dokumentazio lan itzela egin baitzuen. Egunkarietan ikusten zituen Santiren inguruko testu eta argazki guztiak bildu eta gordetzeari ekin zion. Bere anaia ikaragarri miresten zuen Iñaxik eta txirrindulariarena baino, pertsonaren zale amorratua zela esan daiteke. Izan ere, irabaztea jomuga izan arren, sen onekoa eta abegikorra bezala definitzen zuen bere anaia.

Honen harira, *Zerbait handia gertatu behar balu bezala* ipuina idatzi zuen Iñaxi Lazkanok eta 1986ko Zarauzko V. Lizardi Literatur Sariketako aipamen berezia jaso zuen. Ipuin horretan, esplizituki hala adierazten ez bazuen ere, bere anaia Santiren bizitzaz ari zen. Txirrindulari izan nahi zuen gaztetxo baten gora-beherak kontatzen zituen. Txikitatik gainditu beharreko oztopoak gaindituta, karrera batean parte hartzeko aukera

izanik, garaile suertatzen den gaztetxoarenak, hain zuzen.

Adibide bezala aipatzekoa da, ezagunen batek emandako eskupekoarekin bizikletako arropak etxekoen ezkutuan nola erosi zituen; edota Santi lasterketetan bazebilela anaiak jakinaren gainean egonda, bazkalorduan aitari zerbait kontatzen hasten zirenean, Santik arrebari garbantzua ez zitzuela gustuko esanez gaia nola aldatzen zuen kontatzen du Iñaxik ipuinean.

Modu honetan, anaia nolakoa zen argi utzi nahi izan zuen horrenbeste maite zuen arrebak. Lortu nahi diren gauzek beren zailtasunak dituztela eta hauek gainditzeak esfortzu bat eskatzen duela erakutsi nahi zuen Iñaxik, anaiak bizitzan ezin hobeto praktikan jarri zuen lezioa errepikatuz.

Senar bezala, berriz, etxetik kanpora egotea egokitu izan zitzaion Santiri. Josune Orbegozok 1965ean ezagutu zuen eta hamaika urtean Santiren bizimodura moldatzea tokatu zitzaion. Komeni zitzaion bezalako elikadura-eredua izan zezan erosketetan eta otorduetan arreta izan behar zuen; karreretarako zerabiltzan arropak ezin hobeto garbitu, zaindu eta mantendu behar zizkion; asteetarako kanpora joaten zenean, alaba txikiekin bakarrik



Josune eta Santi, Londresko Richmond parkean. Josune Londresen egon zen urte eta erdian ingelesa ikastera joanda. Txirrindularitzako denboraldia amaitzean, andregaiarengana joan zen Santi eta Londresen ezkondu ziren.

geratzea onartu behar izaten zuen... Baina, Urrestillako neskak horren gogotsu ikusten zuen Santi hainbeste maite zuen munduan murgilduta, non bera ere zoriontsu sentitzen zen, senarrari nahi zuen hura lortzeko ahal zuen heinean laguntzen.

Zenbait kasutan, Josune ere joan izan zen karreretako etaparen batzuk ikustera. Baina, amaiera ondo ikusi ahal izateko, kokagune zehatzetara joan beharra zegoen eta horrek denbora asko eskatu ohi zuen. Ondorioz, oro har etxean itxaroten zion itzultzen zenerako.

Egunerokotasun zorrotza jarraitzen zuen Santik eta horrek, berari eta bere ingurukoei dedikazio handia izatea eskatzen zien. Goizean 09:00ak aldeira irten eta eguerdira arte ibiltzen zen bizikletan entrenatzen. Garai hartan ez zegoen gaur egunean bezalako gimnasiorik edota kiroldegirik eta bere gorputzarekiko lanketa osoa bere gain hartu behar izaten zuen. Itsu-itsuan sinesten zuen nahi zuen horretan eta, berak sarri esaten omen zuen bezala, txirrindularitza ogibide bezala hartzea ez zen nahikoa. Barrutik eta benetan sentitu eta maitatu beharreko zerbait zen eta, hala eginez gero, gora heltzeko burutu beharreko ahaleginak ez ziren horren gogorrak.

Etxekoek gogoan dute orduak entrenatzen igaro ostean, edonora joan eta zutik egon ezinda geratu ohi zela sarritan. Gorputza bizikleta gainean ibiltzeko lantzen zuen Santi Lazkanok eta, horrek, beste hainbat gihar atzenduta geratzea zekarren. Ondorioz, denboraldia amaitua zenean, neguan, zenbaitetan, mendira joan ohi zen aire librean gimnasia egitera. Modu horretan, gorputzeko gihar guztiak lantzen zituen eta sasoi bete-betean egon ohi zen.

Bestalde, txirrindularitzan eginiko ibilbidea amaitu aurretik, zenbait urtetan negu partean Benidormera ere joan izan ziren senar-emazteak bi alabatxoak hartuta. Azpeitian egunero entrenatzeko eguraldi egokia egitea zaila zenez negu garaian, Benidormera joaten ziren giro hobearen bila.

Alabek, berriz, normala den gisara, munduko aitarik hoberentzat zuten Santi. Pertsona indartsua, ulerkorra eta aurrerakoia zen eurentzat. Alaba zaharrenak, Enekak, bi urte zituela eta gazteena, Izaro, jaioberria zela utzi behar izan zuen bizikleta eta, ondorioz, ez zuten aita txirrindulari bezala gehiegi ezagutu. Hala ere, karreretara kanpora joaten ez zen arren, eta geldirik egon ezineko pertsona bat zela kontuan izanda, etxetik kanpora ordu

asko pasatzen zituen aita zen. Baina etxera etortzean, familiaz gozatzea nahi izaten zuen eta ahal zuen denbora guztia aprobetxatzen zuen alabekin jolasteko.

Adibide bezala, goiz batean eskolara joan aurretik Eneka esnatu eta Urrakira eraman zuen, han goitik Azpeitia behe-lainoz estalia nola zegoen erakutsi nahi ziolako. Halako detaileak izaten zituen gertukoenekin, berak gustuko zituen gauzak bestekin partekatzeke nahia eta beharra sentitzen zuen gizona zen Santi.

JABIER ZINKUNEGI, LAGUNA

Santi bera bezalaxe, errezildarra da Jabier Zinkunegi, Eitzeta baserrikoa, hain justu. Txikitan ezagutu zuten elkar eta, txirrindularitzarako zaletasuna partekatzen zutenez, hainbat une igaro zituzten elkarrekin. Santi kaleko etxe batekoa zen eta Jabierren jaiotetxea, berriz, herriaren behe aldean dago. Ondorioz, ez ziren eskola garaian-eta elkarrekin ibili. Santi Lezoko izeba-osaben etxetik itzuli eta Loiolan arotz ofizioa ikasten zegoela ezagutu zuten elkar. Urte batzuetan elkarrengandik aparte bizitzea egokitu bazitzairen ere, urtean zehar hama-

bosten bat egun pasatzen zituzten batak bestearen etxean eta ez zuten inoiz harremanik galdu.

Jabierrek ere gustuko zuen bizikletan ibiltzea. Baina baserritarra izanik, ez zuen denbora nahikorik zaletasunari eskaintzeko. Ondorioz, Santiren jarraitzaile eta prestatzaile leiala izatera mugatu zen. Karreraren batzuk elkarrekin korritu bazituzten ere, oro har, Santi eramatera joan ohi zen. Gainerako jendearentzako gisan, pertsona eta profesional bezala eredugarria zen Jabierrentzat bere laguna. Berak horrenbeste maite zuen munduan aurrera egitea lortu arren, ez zuen inoiz nondik zetorren ahaztu eta betiko lagunekin gogoratu ohi zen. Mundu horretan ibilitakoa da Jabier Santirekin batera, eta ezagutu izan zituen ospea burura igota gertuko jendeari kasurik egiten ez zietenak ere. Santi, ordea, guztiz kontrakoa zen, txikitako lagunak inoiz utzi nahi izan ez zituen horietakoa.

Harritu egiten zen Jabier Zinkunegi, nahi zuen hura horren garbi izan eta lortzeko edozer egiteko prest egoten zelako Santi. Gainera, irabaztea izaten zuen helburu, baina horretarako inor zapaldu gabe edota beste inoren ahaleginaz aprobetxatu gabe. Jabierrek gogoan du inguruan, taldean bertan,

bazituela Santik kideez askorik arduratzen ez ziren berekoiak. Santiri sarri egokitu izan zitzaion taldeko buruari laguntzen ibiltzea, eta horretantxe ari-zen zen, horretarako prestatu behar bazuen, horretarako prestatzen zen.

Zinkunegik gogoan du behin, Italiako Giro bate-rako prestatzen ari zela Santi. Pasaian bizi zen eta entrenamendu garaietan giro desberdinetan egin-dako probak onuragarri izaten direnez, Azpeitira jo zuen astebeterako. Italiara joateko hegazkina hartu behar zuela eta, eta entrenatzerik izango ez zuenez, bezperan zerbait gogorra egitea pentsatua zuen. Hala, Jabierrekin hitz egin eta egun batez entrena-tzeko Iruñetik joan-etorria egitea erabaki zuen. Jabierri motorra hartzeko agindu zion eta, egun hotzak zirenez, arropa dezente jantzita irten zen etxetik.

Gutxi gorabehera Azpirotzera heltzeko zenbat denbora beharko zuen aurreikusi eta ordu horreta-rako motorrean hara agertzeko esan zion. Hitz emandako lekura ailegatu aurrexeagotik harrapatu zuen Jabierrek Santi. Baina esan bezala, Azpirotzera joan eta hantxe itxaron zion, iristean arropa batzuk kendu zitzaion eta berari eman ostean, aurrera jarrai zezan.

Hurrengo elkargunea, Iruñean zuten. Hara biak heldu eta apur batean egon ostean, itzulerako bidean zegoen iturri batean jarri zuten hurrengo zita. Jabierrek han itxarongo zion botilatxoa ur freskoz beteta. Berririo indarrak hartu eta Azpeitiraino itzuli zen hurrengo irtenaldian.

Honelakoak egindakoa zen Santi. Jabier harritzen zuena horixe zen. Norbaiti zerbait agindu eta konpromisoz egitera behartuta egonik, hitz emandakoa bete egin behar omen da. Baina bere buruari horren meta zailak jarri eta horietara heltzeko egin beharrekoa hain garbi izanda amaieraraino iristea, izugarria zen. Ez zuen beste inoren aurrean ongi geratzearren egiten, bera zen horrela saiatuta gehien pozten zena.

Santik bazekien txirrindulari profesional gisara ez zuela bizi guztian ibiltzerik izango. Ondorioz, aurrera begira, izan zitzakeen lanbide posibleak aurreikusten ibiltzen zen. Jabierrek ere, bi aukera zituen, etxeko martxa hartuz baserriko lanetan jarraitu, edota Azpeitira jaitsi eta zerbait ezberdina egiten hasi. Halaxe, gaztetako bi lagunek elkar hartu zuten eta, zalantza askoren ostean, Azpeitiko Garmendi auzunean dagoen Errezil-Etxea autoen tailerra jarri zuten abian 1975. urtean. Garai horre-

tan oraindik –Holandako istripua izan aurretik– txirrindulari profesionala zen eta ez zuen beste lar biderako aukera handirik. Hargatik, urte betea gutxi gorabehera, Jabier bera arduratu zen tailerra ren gidaritzaz, 1979an Santi emaztearekin eta alabekin Azpeitian finkatu zen arte.

Geroago, Izaro Autoak sortu zuten; Jabierre parte txiki bat bazuen ere, gehiena Santiren izenarekin zegoen. Lazkano hil ostean, aurrez Errezi Etxean lanean arituriko batek hartu zuen bere gai horren ardura.

AISIALDIAN, TXIRRINDULARITZA

Santik ez zuen lagunarteko jendearekin denborasko pasatzeko aukerarik izan bere bizitzan. Autoen tailerrekin, kirol-dendarekin edota txirrindulari eskolarekin bazuen nahikoa lan. Eta, ondorioz, libre zuen denbora apurraz gozatzeko ondo izaten zituen lagunak ere, bere zaletasunarekin lotutakoak izaten ziren.

Horren okupatua egon arren, tarteka ateratze zuen astia parrandaren baterako ere. Profesional txirrindularitza utzita, Euskal Herriko Itzulian estartari-eta aritu zenean, bere lagun Fernando

Bereziartua *Pikua*-rekin batera aritu izan zen urteren batzuetan. Santi motorrean ibiltzen zen eta Fernando, berriz, autoko gidari lanetan. Fernandok egun horietan elkarrekin eginiko parrandak gogoan ditu oraindik ere. Gainerako gauzetan bezalaxe, tokatzen zen hura bere indar eta gogo guztiz egiten zuen Santik, baita parranda ere. Egun puntualak eta oso noizbehinkakoak izaten ziren arren, ederrak egindakoak omen dira elkarrekin.

Gainerakoan, inguruko jendearekin konplitu behar izaten zuenez, lagunarteko afariren batzuetara agertzen zen ahal zuenean. Horrez gain, bere okupazio denetatik iganderen batzuk ere libratu ohi zituen. Egun horietan, emaztearekin, bi alabeekin eta gertuko lagun baten sendi osoarekin batera, egun-pasak egiten zituen.

Korritu zituen karrerak kontuan izanda, gehien animatzeko joera zuen jendea Euskal Herrikoa zela esaten omen zuen Santik. Erabat abertzalea eta euskaltzalea zen eta hori, bere aisialdiko zaletasunetan ezin hobeto islatutako zerbait izan zen. Etxean lasai egoteko aukera zuenean, eleberriak –gehienbat historia testuak– irakurtzea zuen gustuko. Bestalde, bere euskaltzaletasun sutsuaren adierazgarri bezala, entzuten zituen txistu edota akor-

deoi kantak aipa daitezke. Gustuko zituen sentimenduz beteriko abestien artean, *Itziarren Semea* zen gehien maite zuena. *Estadio* egunkarirako egin zioten elkarrizketa batean berak esana da asko hunkitzen zela euskal kantuokin.

Elkarrizketa berean, ondorengorik bazuen galdetuta, Eneka izeneko hiru hilabeteko alabatxoa zuela erantzun zuen. Kazetariak izena gaztelaniara itzultzeko eskatu zionean, euskal izen oso zahar bat zela eta itzulpen zuzenik ez zuela erantzun zuen txirrindulariak. Nafarroako aspaldiko errege-sendi batean du jatorria izenak, Antso Gartzeitx erregearen alaba bat deitzen zen Eneka. Pasadizo honek berak, ezin argiago uzten du Santik Euskal Herriarekiko zuen mirespena eta maitasuna.

Halakoxea zen Santi gertu-gertutik ezagutu zutenentzat. Txirrindulari gisan ezaugarritzen dute lagun bezala ere, hitzekoa eta leiala izan zen Santi. Eta bere inguruko jendea, berekin halaxe portatzea gustatzen zitzaiona.

TXIRRINDULARI ONA ETA LANGILEA

Hamazazpi urte zituela, 1964an debutatu zuen jubeniletan, Cafeterías Onex taldearekin. Garai



1969an Kas taldean eman zuen
profesionalerako saltoa. 1972ko argazki
honetan Santi erdi makurtuta dagoena da.



Txirrindularitza giroan mugitzen
ziren lagunak zituen Santik.
Argazkian, erdian ageri da.

horretan ez zen bere ingurukoen artean gailentzen zena, baina nahiko ongi moldatzen zen. Gaztetxoa zeneko bere oroitzapenen artean, bere lehen garai-pena izandako Aiako Itzulia gordetzen zuen. 1965ean izan zen, Orioko aldapan beste aurkari batekin batera ihes egin zuen pelotoitik eta haren parean iritsi zen Donostiara arte. Bertan zegoen helmuga eta, azken indarrak aprobetxatuz, ihes lagunari gain hartu ahal izan zion.

Ondoren, afizionatuetara igaro zen eta Educación y Descanso eta Fagor taldeetatik igaro ostean, Kas-en afizionatuen taldera sartu zen. Garai horretan izaniko lehia batean, erraz etsitzen ez zuen pertsona zela argi utzi zuen. 1968. urtean, Valladoliden jokutzen zen Mexikoko Joko Olinpikoen aurretiko proba batean, hainbat oztopo bata bestearen atzetik gailentzeko gai izan zen. Lehen aldia zuen 150 kilometro baino gehiagoko karrera batean parte hartzen zuela eta, nabarmen-durik zihoala, istripua izan eta gurpil bat apurtu zitzaion. Hura konpontzen denbora dezente galdu ostean, berriro ere pelotoia harrapatu zuen eta baita pelotoi-buruan zioan taldetxoa ere. Helmugarako hamar kilometro falta zirenean, gurpila zulatu zitzaion eta jadanik ezinezkoa zen hori

konponduta buruan zihoan taldea berriro harrapatzea. Ondorioz, erretiratu egin behar izan zuen. Halere, bere buruaz harro sentitu zen egun hartan.

1969an Kas taldean bertan emango zuen profesionaletarako saltoa. Urte hori nahiko ona izan zen Sabtirentzat, erraz eta ondo antzean ibili baitzen. Baina, hurrengo urtean, soldaduskara joan behar izan zuen eta ez zuen luzitzeko aukerarik izan; 1970eko amaiera aldera lizentziatu zenez ejertzitotan, hurrengo urteko denboraldirako gehiegi prestatu gabe zegoen. Hala ere, Erregio Mailako Espainiako Itzulian gailendu zen, Txomin Perurenarekin eta Migel Mari Lasarekin batera.

1972. urtekoa izan zen bere denboraldirik onena. Levanteko Itzulian etapa bat irabaziz hasi zen eta sailkapen orokorrean, taldekide zuen Perurenarekin denboran berdinduta, bigarren postua lortu zuen. Honen ostean, 27.000 kilometro inguruko denboraldi betea eta erregularra burutu zuen, Emiliako Itzulian Eddy Merckx handiaren atzetik bigarren postua lortuz borobildu zuena.

Beti gauza berriak ezagutzeko eta probatzeko prest egoten zenez, 1973an ziklo-krossean parte hartu zuen. Afizionatuen garaitik esperientzia apur bat bazuen proba horietan eta halaxe animatu zen.

Gainera, neguan zehar ariketa fisikoarekin jarraitzea interesgarria iruditzen zitzaion, denboraldia hasten zenerako gorputza martxan izatea ahalbidetzen baitzion. Baita bizikletarekiko kontrol osoa izatea ere, ondoren egoera txarrean zeuden errepi-deetan bere jarduna errazagoa izan zedin.

Kas taldean bete zuen aroa izan zen Santi Lazkanoren ibilbidean oparoena. Hona hemen garai hartako emaitzarik aipagarrienak:

–1969an: Valles Mineros-eko Itzulia eta etapa garaipena.

–1971n: Caboalles-eko Saria; Erregio Mailako Espainiako Itzulia; eta Volta Catalunya-ko Mendiko Saria.

–1972an: Levanteko Itzulian etapa garaipena; Pascuas-eko Saria; Antonio Blanco Sariko etapa garaipena; Volta Catalunya-ko etapa garaipena; eta Erregio Mailako Espainiako Itzulia.

–1973an: Arratera Igoera; Ordiziako Saria; Espainiako Mendiko Txapelketa; eta Oiartzungo Proba.

–1974an: Italiako Giro-ko etapa garaipena (Como-Iseo); Erregio Mailako Espainiako Itzulia; eta Errioxako Itzuliko Mendiko Saria.

–1975ean: Midi Libre Probako etapa garaipena.

Itzuli handi ospetsuetan ere parte hartu zuen. Kas-en zebilela, Italiako Giroan hiru urtetan atera zen. 1972an, hamargarren postua lortu zuen; 1973an, bosgarrena izan zen; eta 1974an, berriz, hamaseigarren geratu zen. Espainiako Itzuliari dagokionean, aipatzekoa da 1975ean bederatzigarrena izan zela. Kas-en zegoela, hiru urtetan hartu zuen parte Frantziako Tour ospetsuan: 1969an, 1973an eta 1975ean. Azken honetan ibili zen ondoren, hogeita bederatzigarren postua erdietsiz.

Urte berean, Super Ser taldean hasi zen eta hantxe jarraitu zuen hurrengo urtean, bere txirrindulari ibilbidea etengo zuen istripua izan zuen artean. Garai horretan, Asturiasko Itzulia irabazi eta Frantziako Tour-ean parte hartu zuen azken aldiz, 1976. urtean zehazki.

Santi txirrindulari osoa zela esan genezake, langilea eta sufritzen zekiena. Eskalatzaile bikaina eta gogorra. Taldekideei babes eta animo erakustaldi itzelak egiten zekien. Karreretan taldeari laguntzeko eta arerioei gaina hartzeko edozertarako prest egoten zen. Baina, behin lehia amaituta, aurkariak ere mirestekoko moduko pertsona zela esaten omen zuten.

Bere buruari diziplina izugarria ezartzen zekien

pertsona zen. Taldeko entrenamenduekin hasi aurretik, bere kabuz hasi ohi zen abendutik Gipuzkoako errepide guztiak korritzen, egunean lau edo bost ordu pasatuz bizikleta gainean.

Ezaugarri aipagarri bezala mendia zenez bera egokien moldatzen zen eremua, sarritan egokitu zitzaion taldekideentzako lana egitea. Eta berak halaxe esan ohi zuen, txirrindularitzak arriskatzen ikasten lagundu ziola, taldekideei faboreak egiten ikasi zuela.

Italiako Emiliako eta Lombardiako Itzulietan aurkari sutsu izan zuen Eddy Merckx zuen gustuko Santik, txirrindulari zein pertsona bezala. Profesionaltasun handiko kirolaritzat zeukan, lehian zegoenean hitz egiten edota aurkarien inguruan gaizki esaka denbora galdu ordeztu, haren obsesio bakarra pedalei eragitea zelako. 1973. urtean edo, Merckx-en taldeak fitxatu nahi izan zuen Lazkano. Txirrindulari famatuari ere interesatzen zitzaion nonbait etapetako lanik zailena egiteko prest egongo zen norbait izatea taldean. Baina erabaki horrek Belgikara bizitzera joatera behartzen zuen eta, Kas-en pozik zegoenez, atzera egin zuen.

Bitxikeria bezala, garai hartan ohikoa ez zen gisara, negu partean behintzat bere bizar eta guzti



1978an Santi Lazkano Kirolak denda ireki
 zen eta inauguraziora etorri zen Eddy
 Merckx handia –argazkian, erdian–.
 Ezkerrekoa Fernando Bereziartua 'Pikuá'
 eta eskubikoa, Santi Lazkano bera.



Urola Txirrindulari Eskola
 i zuen martxan Santik.

ibiltzen zen Santi bizikleta gainean. Ohitura hori zuen bakarra izan zela esan daiteke, hainbat aldiz kazetariak ere galdetu izan baitzioten-eta zergatik ez zuen bizarrik moztan.

Liburuxka honetan, hainbeste aldiz aipatu da 1976an Santiri txirrindulari bizitzarekin amaitzea eragin zion Holandako ezbeharrak. Baina hala ere, hainbeste maite zuen horretan ahal zuen guztia ematen jarraitu zuen. Urrakiko Igoera edota Euskal Herriko Itzulia burutzeko antolatzaile lanean, Euskadi Irratirako esatari lanak egiten...

Aitzitik, bere ekarpenik aberasgarriena, Azpeitian Urola Txirrindulari Eskola sortzeko ideiarekin etorri zen. Proposamenak eta asmoak aspalditik baziren ere, iniziatiba hartu eta zerbait martxan jartzen asmatu zuena bera izan zen. Txirrindularitzaz zekiena besteei erakusteko gogo eta grina izugarria zuen. Mundu honetakoak diren hainbatek, ospetsu izan eta jadanik erretiratu diren txirrindulariek hori falta dutela aipatzen dute. Santik bi helburu zituen: batetik eskola martxan jartzea eta, bestetik, Lagun Onak Txirrindulari Elkartearantz lokal bat lortzea. Zoritxarrez, elkar-teak egun erabiltzen duen lokala ezagutu aurretik hil zen.

Etengabe aipatzen diren Santiren baloreekin segituz, aurrerakoa eta modernoa zela erakusten duten ekintzak gauzatu zituen. Txirrindularitza Eskolan bizikleta gainean entrenatzea baino zer-bait gehiago egin behar zela uste zuen eta bizikletaren piezen inguruko klase teorikoak ere eskaini nahi izan zituen. Horrez gain, garai hartan oso ohi-koa ez zen bezala, nesken taldea sortzearen alde agertu zen eta baita halaxe egin ere –bere bi alabak ibili ziren bolada batez Lagun Onak Txirrindulari Elkartearen nesken taldean–.

Horrez gain, gaztetxoekin ezin hobeto moldatzen zen Santi. Hurrei ahaleginik eta denborarik eskatu gabe irakasten zekien, eta lehiakortasunaren ordeztan, taldeko giro ona bultzatzen saiatu ohi zen. Gaztetxoek txirrindularitza gozatzen ikas zezatela, lehia gisan ulertu ordez; hori zen Errezilgoaren helburua. Izan ere, Santik oso argi zuen, lehian aurrera egin nahi bazen lehenik barrutik benetan sentitu behar zela txirrindularitzarekiko grina. Poza emango zien hurrei sariak irabazteak ere, baina horrez gain, Santi Lazkano kirol-denda aurrean autobus oso bat gaztetxo eta gurasoz bete eta joan behar zen lekura bizikletak autobus gainean lotuta joateak, xarma gehiago zuen. Eta horrela-

xe ibiltzen ziren garai hartan Urola Txirrindularitza Eskolakoak.

HERIOTZA BI GURPILEN GAINEAN

1985eko otsailaren 3an hil zen Santi Lazkano Aizarnazabaldik Zarautzerako bidean. Motorrean zihoan eta errepidea gurutzatzen hasi zen pertsona bat saihestearren, bazterra jota hil zen. Hain mai-tea zuen tramankuluaren gisan, bi gurpileko beste ibilgailu batek eraman zuen mundu honetatik. Horixe zuen patua nonbait: bi gurpilen gainean ibiltzeak eman zizkion zoriona eta une gozoak; bi gurpilen gainean zebilela izorratu zuen belauna eta ezin izan zuen profesional bezala bi gurpil haiez gehiago gozatu; eta, motorrean izan arren, bi gurpilen gainean zihoala hil zen.

Santi Lazkanoren heriotzaren hogeita bosgarren urteurrena igarotzean hainbat ekimen antolatu ziren bere omenez. Esanguratsua da mendelaurdenak adierazten duen urte kopurua. Baina data esanguratsuetaz gain, egunero beretaz oroitzen den jende asko dago oraindik ere. Bihotzean daramate haren izaera, haren ahalegin etengabea, haren lanerako grina eta irabazteko asmo sutsua.

Hargatik, Santi urteko egun guztietan omendu beharreko gizona izan zela esan daiteke. Une esanguratsuek eta gogoangarriek, bere garai onenen berri jakitera garamatzate. Baina berak nahi zuen hori lortzeko gogor saiatzen zen bezalaxe, gainerakoei laguntzeko ere beti prest egoten zen. Txirrindulari eskolak ederki mimatzen du Santiren irudia. Eta ez da gutxiagorako, bertako sortzaile izan zena, bi gurpilen gainean dena emateko prest dauden etorkizuneko profesionalentzako eredu ezin hobe baina. Txirrindularitzarako indarra bizitzan nahi zuena lortzeko erabiltzen jakin zuen fenomeno izan zen Santi Lazkano.

Uztarriaren Produktuak

Liburuak

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbietta, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Erniarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	--

Liburuxka Biografikoak

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



